

## **KANALAK**

Enpresak hainbat komunikazio-kanal izango ditu; sare sozialen munduan sartuko gara, bertan, enpresaren helburua eta zerbitzuak azalduko ditugularik.

Sare sozialetan sartzearen heburua saltzen ditugun produktuen berrien berri emango dugu. Hortaz aparte, zozketak, deskontuen berri eta sustapenak ere argitaratuko ditugu.

Web gune orria ere izango dugu, [www.ekintzaileak.com](http://www.ekintzaileak.com) izango da, orri honen bidez eskaerak egiteko aukera izango dute. Eskaera horrek etxera bidaltzeko aukera egongo da edota Bilbon egongo den dendan enkargatu ahal izango dute; Merkatua zabaltzeko herri txikietako azoketan postu bat irekiko dugu.

Arazorik egotekotan, adibidez, eskatutako paketea galtzea, enpresan daukagun protokoloa martxan jarriko genuke; web orrialdearen bitartez bezeroari paketea heldu ez bazaio, erreklamazioa egin ahalko dute. Baita ere edukiko dute bezeroek 24h-ko arreta zenbaki honetan: 946 534 789. Paketea bidaltzeko erabiliko dugun enpresa Correos izango da; paketea non dagoen jakiteko jarraipen kodea edukiko dute.

Paketea agertzen ez bada edo apurtuta heltzen bazaie bezeroek bi aukera izango dituzte; dirua berrezkuratu edo beste produktu batengaitik aldatzeko aukera izango du. Produktua aldatzekotan bi aukera izango dituzte: salneurri bereko produkturen bat aukeratu edota falta den diru-aldea jar dezakete.